

II. Blokea

Zer albiste irakurri nahiko zenuke?



Etapia: 15 - 18 urte artean



Zailtasun-maila: ertaina



4 kide



Denboralizazioa: 8 saio



Etiketak: albisteak, esleitzea, alfabetizatze mediatikoa, desinformazioa

Jardueraren deskripzioa:

Ikasleek egunkari bat sortuko dute albiste faltsuekin, komunikabide batean umore ukitu bat emanez argitaratuta ikusi nahiko lituzketenak. Gezurrezko albiste on bat nola egituratu eta egileak horiek zabaltzeko izan ditzakeen arrazoiak aztertu ondoren, ikasleek nazioarteko taldeetan lan egingo dute albisteak sortu eta argitaratzeko.

Helburuak: (3 gehienez)

1. Aztertzea zergatik zabaltzen diren albiste faltsuak azkarrago eta zergatik iristen diren egiazkoak baino pertsona gehiagorengana.
2. Ulertzea albiste faltsuak eta buloak kasualitatez gertatzen ez direla eta desinformazioaren atzean arrazoi bat dagoela.
3. Albiste bat antolatzea kazetariaren 5Wen gidariari jarraituz (*Who, What, When, Where and Why/Nor, Zer, Noiz, Non eta Zergatik*).

Gako konpetentziak eta zeharkako gaiak:

- Hizkuntza-komunikazioa
- Konpetentzia digitala
- Konpetentzia sozial eta zibikoak
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako konpetentzia
- Komunikabideetarako heziketa
- Kontsumitzailearentzako (eta erabiltzailearentzako) heziketa

Curriculumeko edukiak:

- Albisteen egitura
- Informazioa aztertu eta sintetizatzea
- Balabideen (irudia) egiletza esleitzea

Inklusio-alderdiak:

Ikasleek albistek eta modu sortzaile eta irekian sortuko dituzte; sormena eta kideztza adierazpen kultural eta artistikoaren bidez garatuko dituzte, enpatiaz eta elkarlaneko jarreraz, aniztasuna bizikidetzaren oinarri gisa onartuz.

Aurreikusitako produktuak / emaitzak:


- Albiste faltsuen egunkari kolaboratiboa

JARDUERAREN DESKRIPZIOA



Prestatzea


1. urratsa: Dozente kide bakoitzak ikasle bakoitzarentzako profil bat sortuko dut TwinSpace-n.



Tutoriala: [Nola gonbidatu ikasleak TwinSpace-ra](#)

2. urratsa: Gaiaren sarrera

Irakasleetako batek orrialde bat sortuko du TwinSpace-n *The news we 'd like to read* (Irakurri nahiko genituzkeen albistek) izenburupean, eta aurkezpen bat argitaratuko du bertan, albiste faltsuen egiturari eta egileak albiste horiek zabaltzeko izan ditzakeen arrazoiei buruz eztabaidatzeko.



Tutoriala: [Nola sortu jarduera-orri bat eta TwinBoard bat TwinSpace-n](#)



1

[TwinSpace 1](#)

Pages

- EUROPE
 - PRODUCT 2: "MEDIA LITERACY IN EUROPE" SURVEY
 - PRODUCT 3: DETECTING FAKE NEWS: A MULTILINGUAL GUIDE
 - THE NEWS WE'D LIKE TO READ**
 - PRODUCT 4: ON THE SPOT FAKE NEWSPAPER
- FAREWELL
- FINAL ASSESSMENT
 - Escape room
 - DISSEMINATION
 - QUALITY LABEL

THE NEWS WE'D LIKE TO READ

ON THE SPOT
SPOTTING DISINFORMATION LESSON PLAN

LEARN FROM THE PROS
FROM JESTIN COLER (CALLED "THE FAKE NEWS KING" BY THE NATIONAL PUBLIC RADIO)

- Getting responses from the readers. We want them to hit the button and share the news.
- You need fictional stories that people want to be true.
- Will your story surprise or shock the reader?
- Use the 5 Ws: **WHO** is involved? **WHY** and **HOW** does the action take place? **WHAT** is happening and **WHERE**?

Check this collection to find free photos without copyright

TASK 0 Write the beginning of a story

TASK 1

- Read your partners' story and complete it.
- Add a **HEADING** and a free **PICTURE** that will complement the story. Mention the source.

TASK 2

Share the structure of a good, fake piece of news. Your partners will write the story:

- HEADLINE
- WHO
- WHERE
- WHAT
- WHY
- A PICTURE TO INSPIRE YOUR PARTNERS AND A CAPTION (Mention the source)

FAKE NEWS

TODAY NEWS

3. urratsa: Albistek sortzea

Irakasleek nazioarteko taldeetan albistek bi modutan sortzea proposatuko diete ikasleei. Lehenengo aukeran, ikastetxe bateko ikasleek albiste bat hasiko dute, eta beste ikastetxe bateko beste talde batek amaitu, titulu bat proposatu eta argazki bat gehituko du erabilera askeko irudi-baliabideen banku batetik. Bigarren aukeran, ikastetxe bateko ikasle kideek proposatuko dituzte titularra, albistearen eskema 5 Wekin (Nor, Zer, Noiz, Non eta Zergatik) eta istorioa beste zentro kide batean kontatuko duen taldea inspiratuko duen argazkia.

4. urratsa: Zeregina nazioarteko taldeetan antolatzea

Irakasleek dokumentu partekatu bat gehituko dute orrialde horretan, albisteen sorrera antolatzeko. Dokumentuan, albistea nork hasiko duen, nork jarraituko duen eta istorio bakoitzaren dokumenturako esteka jasoko dira. Irakasle kideek ikasleek taldeetan banatuko dituzte, istorioetan proposatutako gaietan dituzten interesak eta trebetasunak noraino irits daitezkeen errespetatuz.

TwinSpace

2

[TwinSpace 2](#)

Pages

eSafety and Netiquette

> THE NEWS YOU'D LIKE TO READ

+

Archive

+ Create a page

THE NEWS YOU'D LIKE TO READ

NEWSPAPER CHART

Please add who starts the news, who continues the story and the link to the document. Check permissions to give access to the document.

Each school starts two or more pieces of news and shares them via link to the document. When the first parts are in the chart, each school picks up TWO from another partner, writes their name in the chart so everyone knows they are working on it, and finishes it.

- Share 5 Ws and it will be finished by a partner
- Start a story and it will be finished by a partner

When it's all ready (hopefully by the end of the 1st week of June) Bilyana's students will put it all in a digital publication as a newspaper.

We started a draft of the newspaper at Koldo Mixelena. Hope it helps. The pieces of news in green have already been added.

PIECE OF NEWS	STARTING PARTNER	FINISHING PARTNER	LINK TO DOCUMENT
1	Jardín	Bulgaria NEWS1,2,3 Koldo News 4 Koldo News 5	NEWS1 ready BK NEWS2 ready plastic NEWS3 ready UEFA NEWS4 done Palestine NEWS5 done Trans
2	Jardín	Bulgaria 5Ws Koldo 5Ws 2	5W Malaga 1=NEWS 1 5W Malaga2 done Disney 5W Malaga 3




Tutoriala: [Nola txertatu 2.0 tresnak TwinSpace-ko orri batean](#)

5. urratsa: Egunkari bat sortzea

Irakasle batek inkesta bat sortuko du *The news you 'd like to read* orrian, ikasleek botoa eman eta txantiloia aukera dezaten nazioarteko albisteekin egunkaria sortzeko.



Tutoriala: [Nola gehitu inkesta bat jarduera-orri batean](#)



3

TwinSpace3

Which template would you like to choose to create the newspaper?

- SlideMania Newspaper
- Genially Newspaper
- Create a new template

Vote

View result

6. urratsa: Azken produktua

Irakasle batek azpi-orri bat sortuko du TwinSpace-n, *Fake Newspaper* izenekoa, *The news you 'd like to read* orri nagusiaren azpian; jardueraren azalpenak jasoko ditu, eta egunkariaren txantiloia txertatuko du, ikasleek editatu eta albistea sar dezaten.



Tutoriala: [Nola sortu jardueren azpi-orri bat TwinSpace-n](#)

TwinSpace

4

[TwinSpace 4](#)



PRODUCT 4: ON THE SPOT FAKE NEWSPAPER



[SlideMania](#) edo antzekoak

7. urratsa: Jakitera ematea

Irakasleek zentro kide bakoitzaren web-orri instituzionalean argitaratuko dute egunkaria, jakitera emateko. Albisteak proiektuan parte hartu ez duten beste ikasgela batzuetan ere irakur eta azter daitezke.



TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:

- [Nola sortu jarduera-orri bat eta TwinBoard bat TwinSpace-n](#)
- [Nola sortu jardueren azpi-orri bat TwinSpace-n](#)
- [Nola txertatu 2.0 tresnak TwinSpace-ko orri batean](#)
- [Nola gehitu inkesta bat jarduera-orri batean](#)



Bestelako tresnak:

- [SlideMania](#) edo antzekoak
- [Baliabide-bankua Wakeleten](#) irudi libreak bilatzeko